



"GUERNICA" OÑATIN

Santa Ana antzokia

Uztailaren 16tik abuztuaren 8ra

Ordutegia:

11:00-13:00 / 17:00-19:00

Antolatzaileak:

Laguntzailea:



OÑATI
dabilen herria



Gernikaren oroimenez

Pablo Picassoren margolan famatuak Gernikaren bonbardaketa irudikatzen du, 1937ko apirilaren 26an Espainiako Gerran izan zena.

Picassok 1937ko maiatzetik ekainera bitartean margotu zuen koadroa Espainiako Errepublikako Gobernuaren enkarguz, 1937ko Parisko Nazioarteko erakustetarako.

Gerora, 1939an Franco jeneral faxistaren diktadura estatu osoan ezarri zenean, Picassoren koadroa New York-eko Arte Modernoko Museora eraman zuten, baina hark iragarri zuen **Guernica** Espainiara itzuliko zela Francoren Erregimenaren diktadura bukatutakoan. Horrela, 1981ean Madrilera iritsi zen, lehenik Retiroko Parkean jarri zuten eta ondoren Reina Sofia Museoa.

XX. mendeko artelan garrantzitsuenetako bat izateaz gain, benetako ikono bihurtu da, gerrak gizakiei eragindako sufrimendu izugarrien ikur eta bakearen sinbolo. **Guernica**, beraz, gerraren izugarrikeriaren salaketaren ikur unibertsala da.

Oihua. Tragedia. Pinturaren historia eta garaiko historia. Gure historia ere azaltzen du koadroak. Hortik bere indarra. Hortik bere unibertsaltasuna.

Txokolatezko "Guernica"

2021an 84 urte bete dira Espainiako II. Errepublikaren kontra altxatutako indar aliatuek, Alemania naziaren eta Italia faxistaren armadek, Gernikako herria (Bizkaia) bonbardatu zutela. Eta, Euskal Gozogileen federazioak bultzatuta, Euskal Herriko gozogileek Picassoren **Guernica**ren txokolatezko erreplika egin dute.

Guernicak askotariko erreplikak izan ditu mundu osoan zehar eta material, neurri eta euskarri ugartan irudikatua izan da, baina orain arte egin ez den bezalako erreplika du aurtan Picassoren

lanak: Euskal Gozogileak landutakoa, Euskal Herriko lurralde desberdinetako berrogei gozogileek egindako txokolatezko koadroa, txokolate beltzez, zuriz eta esnedunez egina, jatorrizkoaren neurri berekoa eta xehetasun guztiak dituen.

Euskal Gozogileek, lehengaitzat txokolatea erabiliz, 3,5 metroko altuera, 7,8 metroko zabalera eta 400 kilotik gora kakao dituen artelana eraiki dute.



Oñati, txokolatearen herria

Bada nahikoa arrazoirik txokolatezko **Guernica** Oñatira ekartzeko. Orain dela mende asko iritsi zen txokolatea Oñatira, eta, beraz, herriak txokolategintzan historia luzea du.

Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatean, Euskal Herriko lehen unibertsitatea izan zenean (1548), txokolatea medikuntzako ikasketako laborategietan erabiltzen zuten.

Geroago, XX. mende hasieran, Oñatin baziren hamar-hamaika txokolate-lantegi lanean: Maiztegui, Loyola, Onena, Garai-coechea, Guereca eta Orbea, besteak beste.

Gaur egun, "Txokolateixia" txokolatearen Interpretazio Zentroa Orbea fabrika egon zen leku berebean dago. Han kontatzen da Oñatiko txokolatearen historia.

Argi dago XX. mendea mende oparoa izan zela Oñatiko txokolategileentzat, txokolatearen industriak garapen handia izan baitzuen makina industrialen erabilerari esker. ULMA kooperatibaren lehendabiziko produktua, hain zuzen ere, txokolatea biltze-

ko makinak izan ziren.

Gaur egun ere, urte askotako historiari jarraikortasuna emanez, ospe handiko txokolate-fabrika dago Oñatin, Zahor izenez ezagun egin zena eta gaur egun Natra-Oñati dena.

Laburbilduz, Oñati historiaren, artearen eta memoria historikoaren topagune bihurtu da txokolateari esker.

Txokolatearen historia, Oñatin

Txokolatearen historiaren hasiera 1945ean Gipuzkoara batu baino urte asko lehenagokoa da, Oñati konderria zen garaikoa. Konderri izaerak Espainiako Erresumarekiko harremanak errazten zituen, honek zenbait pribilegio ematen baitzizkion. Artxiboko inbentario eta testamentuen dokumentuek adierazten dute Oñatin txokolatea produktu preziatua zela.

Badakigu txokolatea aspaldi kontsumitzen zela Euskal Herrian. 1700. urtean, *An account of St. Sebastián* ingelesezko argitalpen anonimoan aipatzen zen hiriko biztanleek txokolatea gosaltzen zutela.

Dokumentatuta dago XVIII. mendearen hasieran txokolatea kontsumitzen dela Oñatin, bai eta hainbat txokolategilek independentziaren aldeko borroka egin zutela ere.

Oñatiko txokolate-jarduera Caracaseko Errege Konpainiaren Zuzendaritzaren mende zegoen; izan ere, Oñati merkataritza-gune aktiboa zen, eta kolonietarako eta Europarako salgaiak biltegitratzen ziren bertan. Errege Konpainiak, bere merkatarien izenean, Venezuelako kakaoaren merkatua hartu zuen bere gain. Jakina da, 1785ean ateak itxi zituen arte, Oñatiko akzionistak, kapitaiak eta marinelak izan zituela Konpainiak.

Oñatiko Unibertsitatea eta txokolatea

XVIII. mendera arte eragin handia izan zuten txokolatearen zabalpenean monasterioek eta farmaziek. Gainera, mediku gehienak Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitatean graduatzen ziren, eta dokumentuetan agertzen ez bazen ere, argi zegoen medikuek eta farmazialariek elkarrekin lan egiten zutela. Horien artean,

Oñatiko Lazarraga familiakoak, Isabel Erreginaren idazkari pertsonal eta Bidaurreta monasterioko fundatzaileak. Unibertsitateak bezala, eurek ere txokolatea egiteko salgaiak erosten zituzten (kakaoa, azukrea, kanela eta abar) eta horiek lantzeko tresneria zutenez maisu-txokolategileei kakaoa lantzea eskatzen zieten.

Guernicaren erakusketa, Santa Ana komentuan

Mojen monasterioak beti izan dira gozogintzako jakintzaren gordeleku, eta badirudi Oñatin txokolatea egiten lehenengotakoak izan zirela Santa Ana komentukoak. Hainbat gutun eta fakturatan esaten da kakaoa, azukrea eta kanela erosi edo oparitu egiten zirela. Txokolatea modako oparia zen hainbat komentutan, hala nola Bidaurretako komentuan eta Santa Ana komentuan, erakusketa ezarritako dagoen leku honetan.

Arantzazuko ostatuko beheko solairuan ere bazen txokolategile bat, eta errotarria mugitzeko edo salgaiak garraiatzeko mandoa erabiltzen zuen.



XIX. eta XX. mendeetan txokolatea Oñatin

Euskal Herriko herri askok txokolate-fabrika garrantzitsuak zituzten XIX. mendean. Txokolatearen fabrikazioak gure lurraldean izan zuen garrantziaren adibide dira, besteak beste, Mendaro eta Oiartzun, Gipuzkoan; Larraun, Irunberri eta Lerin, Nafarroan; eta Baiona, Lapurdin. Aldi horretan, Oñatin ere ugari dira maisu-txokolategileen kontratuei edo txokolatea fabrikatzeko materialei erreferentzia egiten dieten aipamenak.

Txokolatearen ekoizpena asko garatu zen XIX. eta XX. mendeetan, betiko artisautzatik ekoizpen industrialera egin zen salto, teknika berriak eta sistema berritzaileak erabili. Elaboraziorako eta kontsumorako era berriek errotako maisu-txokolategile ugari sortu zituen Oñatin, eta aipatzekoa da horien artean bazela emakumezko bat ere, Gabina Basterrica.

Poliki-poliki, aurrerapen teknikoek eta Europan kakaoaren kontsumoa handitzeak aldaketa ekarri zuen: txokolatea modu industrialean ekoizten hasi ziren, kakaoa sailkatzeko teknika berriak sortu ziren, torrefakziorako makinak, txokolatea ontziratzeko makinak eta abar.

1936ko gerraren ondorioz, gobernu totalitarioak txokolatearen fabrikazioa, kakaoaren eta azukrearen banaketa eta armadarako prestaketa kontrolatu zituen.

1946an "Egaña y Mendiola" elkarteak Zahor markaren eskubideak erosi eta Oñatin ezarri zuen lantegia. 2004an, Natra taldeak erosi zuen, eta Natra-Zahor sortu zen.

Txokolatearen historia "Txokolateixian"

Gaur egun, Oñatiko "Txokolateixia" txokolatearen interpretazio zentroak bisita gidatuak eskaintzen ditu, aldezturik erreserba eginda. Erreserbak 605763595 telefonoan eta txokolateixia@hotmail.com helbide elektronikoan egin behar dira.

Bertan, kakaoa usaindu ahal izango da, txokolatearen historia errepasatu, produktu horrek zineman edo kirolean utzi dituen arrastoak mirestu eta kromoen bildumak gogoratu, Juanito Zahorrena kasu.

Txokolateixia kalebarria 29an dago, Orbea txokolatea egiten zuten tokian.

